

PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

16-10-20 19ALEA

Azoka
argazkitan

2. ORR. ►►

Etxez etxeko
zaintza langileak

6. ORR. ►►

Kultur etxeko
prozesua

8. ORR. ►►



Egia,
lubakietatik
herrira

4. ORR. ►►

Azoka egun **handia**, beste urte batez

XIX. urtez, azoka handi bihurtu zen Zizurkilgo herrigunea urriaren 9an. Eguraldia lagun, giro aparta izan zen. Azokaz gain, eguerdian 90 pertsona elkartu ziren herri bazkarian eta arratsaldean Euskal Herriko ingude txapelketak borobildu zuen eguna. Goizeko zenbait argazki bildu ditugu Plazaberrin.

2



Herriko baserritarren postuak dira azokaren arima.



Mota guztietako jaki eta edariak dastatzeko aukera izan zen.



Argia Badago-ko kideek jarri zuten postuak ikusle asko erakarri zuen.



Joxin Azkuek hitzaldia eskaini zuen herriko bailara banaketa berriaz.



Orduak aurrera egin ahala jende gehiago hurbildu zen.

ALBISTE LABURRAK

Bartzelonatik Zizurkilera datorren antzezlanak

Urriak 29 19:00etan antzerkiak gozatzeko aukera Zizurkilen Hodei Arrastoa zizurkildarra kide den Institut del Teatre-ko antzezleekin. Emanaldi berezia eskainiko dute.



Marie Brizard berriaren inagurazioa

Irailaren azken egunean egin zen Marie Brizard berriaren inagurazioa. Lantegia handitu eta plantila zabaldua, etorkizuna baikor ikusten dute orain enpresako zuzendaritzak eta langileek. Aldundiko eta Udaleko ordezkariak gonbidatu zituzten inaguraziora. Hasiera ekitaldian, enpresako arduradunak eskerrak eman zizkien bide lagun izan dituenen, tartean Zizurkilgo Udalari.

Joxe Mari Luengo alkateak 2013a ekarri zuen gogora, Udaleko ki-deak kalean ziren langileengana hurbildu ziren azaroko egun euritsua. Orduan Marie Brizard-eko langileak ziren protestan ari zirenak baina ia 3 urte geroago inagurazio egunean ere izan zen protestarik, Gipuzkoako errepideetako langileena. Aldundiko kideei irtenbideak eskatuz batu ziren Zizurkilgo lantegiaren aurrean. Lan gatazka konpontzeko elkarrizketa eskatu zuen kasu horretan ere Zizurkilgo alkateak, bertaratutako agintarien aurrean.



La inauguración de la nueva Marie Brizard

El último día de septiembre se inauguró la nueva Marie Brizard, tras la ampliación de la fábrica y la plantilla. Los responsables del Ayuntamiento y Diputación fueron invitados al evento. El responsable de la empresa agradeció al Consistorio su disponibilidad y ayuda en el proceso que ha vivido Marie Brizard.

El alcalde Joxe Mari Luengo recordó el 2013, concretamente el día en el que los responsables municipales acudieron a reunirse con

los y las trabajadoras que protestaban por la amenaza de cierre de Marie Brizard. Tres años después, el día de la inauguración había otra protesta enfrente de la empresa, los trabajadores de las carreteras de Gipuzkoa que llevan siete meses en huelga. Se reunieron en Zizurkil para pedir a la Diputación (invitado al acto) que negociase y el alcalde de Zizurkil realizó esa misma petición de diálogo en el interior de la empresa.



Arizmendiko bihurgunea, zuzenduta

Herri bideak hobetzeko saiakeran, aspaldi hasi zen egitasmoa da Arizmendi eta beste zenbait baserrietara daraman bidean bihurgune arriskutsu bat zuzentzearena. "Luzeegi joan da kon-tua baina karretera egina dago, eremu horretako betelan guztia amaitu ez bada ere. 12.000 euroko kostua izan du proiektuak", azaldu du Joxe Mari Luengo alkateak.

Se ha cambiado el trazado de una carretera competencia del Ayuntamiento en el barrio Buztin bailara, en aras a mejorar la seguridad vial.



Aduna, Asteasu eta Zizurkilgo Udalek Aranzadi Zientzia Elkartearekin eskuz-esku antolatutako auzolandegian, Belkoain, Zarate-Aitz eta Andazarrate batzen zituen lubakiak azaleratu zituzten. 1936ko gerran, faxisten altxamenduaren aurrean Candido Saseta jeneralak diseinatutako defentsa-sistema bistaratu zuten bi udaz lanean aritu ziren hamaika gaztek. Bertan aurkitutako aztarnekin, dokumentu historikoekin eta lekuko zuzenak izan ziren bailarako herritarren testigantzarekin osatu dute *Saseta Defentsa-Sistema: Armatutako erresistentzia antifaxista Adunan, Asteasun eta Zizurkilen* izeneko liburua.

"Frente de Andazarrate"

Izen honekin aipatzen da dokumentu zein eskuizkribuetan Aduna, Zizurkil eta Asteasuko lurretan barrena eraikitako 4 kilometroko lubakia. "Telesforo Monzonek Loiolako Komandantzian jaso zuen Villafrancatik iritsitako informazio bat, esanez, 2000 laguneko tropa bat gerturatzen ari zela. Ez zeukaten indarririk horri aurre egiteko. Orduan erabaki bat hartu zuten: *herrian ezin badiugu aurre egin, goazen mendira*". Era honetan arrazoitu du Almorzak Sasetaren defentsa sistemaren koka-pena. Denbora gutxian, Azpeitiko komandantziako Miguel Jose Garmendia gerra komisarioak ejertzittoa osatu zuen, baina Almorzaren esanetan, "hura ez zen ejertzittoa bat; buruzagi on bat, Saseta, eta gaizki armatutako zibil boluntarioak ziren". Azpeitian autobusean sartu eta *frente de Andazarraten* uzten zituzten.

Hala ere, 34 egunez eutsi zioten tropa frankistei. Abuztuaren 16an sartu ziren Zizurkilen, eta irailaren 19an agindu zien Sasetak bere gizonetara erretiratzeko. Agindu hau ematen duen eskuizkribua ere topatu dute, baita liburuan gehitu ere: "*Creo llegado el momento de que*

B duinta

Urriaren 6an aurkeztu zuten
Armatutako e

"Ez zen ejertzittoa, buruzagi on bat eta gaizki armatutako zibilak baizik, eta hala ere 34 egunez eutsi zieten tropa faxistei"

marchés a Saturrarán" hitze-kin bidali zien gutuna bere gizonetara.

100 hildakotik gora

Izen eta abizenak jarri dizkie egileek Sasetaren agindupean hildako gudariei. Liburuan, ordea, batzuk sakonago ezagutzeko tartea hartu dute. Horietako bat da Jose Arana Irastorza. Zarateko Bentan hil zuten irailaren 17an eta borrokan hildako ANVko lehendabiziko kidea izan zen. Hurrengo egunean, Zarate inguruan hil zuten baita ere Claudio Olabarri, ANVko beste boluntarioa. Jose Joakin Egaña, PNVko lehen biktima ere Andazarrateko frentean hil zuten, Santamañan zehazki. Azpeitiako komandantziatik gidatzen

Borrokan hil zirenen duintasuna berreskuratuz

Karlos Almorza eta Jabi Buces egileek *Saseta Defentsa-Sistema: erresistentzia antifaxista Adunan, Asteasun eta Zizurkilen* liburua.

zuten bataloiko lehenengo baja ordea, Iñaki Alberdi izan zen, abuztuaren 16an bertan hil baitzuten Bidanian. "Sasetak bere gizon bat hil zela jakin zuenean, bera joan zen gorpua bila Bidaniako baserri bateraino", azaldu du Almorzak. "Gutxi atera ziren bizirik, tartean Gabino Barroso zizurkildarra. Handik hiru egunera ordea, fusilatuta zeuden denak".

Duintasuna eta harrotasuna

Liburuaren aurkezpen ekitaldia oso hunkigarria izan zen. "Borrokan hil zirenen duintasuna berreskuratzea poz handia da guretzat", esanez hasi zuen ekitaldia Jose

Mari Luengo alkateak. Karlos Almorza eta Jabi Buces egileak ez ezik, Jose Arana Irastorza gudariaren senideak eta Teodoro Mujika garaiko testigantzak eman dituen lekuko zizurkildarra ere mahaiaren eserita zeuden. Hauei so, aretoa bete jende zegoen. Lehenik ikusentzunekoa jarri zuten ikusleak testuinguruan kokatzeko, eta ondoren egin zuten Almorzak eta Bucesek liburuaren azalpena. Aranaren senidei eta Mujikari lore sorta bana eman ondoren, Unai Mendizabal herritarrek abestutako bertsoekin amaitu zen ekitaldia: "batzuentzat iragana da, guretzat memoria".



Belkoain, Zarate-aitz eta Andazarrate batzen zituen Sasetaren defentsa sistemak.

Recuperando la dignidad de las víctimas

"El Sistema De Defensa Saseta: la resistencia armada antifascista en Aduna, Asteasu y Zizurkil" es el título del libro publicado por Aranzadi Zientzia Elkartea y escrito por Karlos Almorza y Jabi Buces. Lo presentaron el día 6 de octubre en un acto muy emotivo que presidió el alcalde Joxe Mari Luengo. "Es una enorme satisfacción recuperar la dignidad de las personas que murieron defendiendo al pueblo", afirmó. El libro tiene tres ejes: los hallazgos arqueológicos rea-

lizados en los auzolandegis que organizaron los ayuntamientos de Aduna, Asteasu y Zizurkil, la documentación histórica y el testimonio de los vecinos que padecieron las consecuencias de la guerra del 36.

"Frente de Andazarrate"

Así se mencionan en los documentos los cuatro kilómetros de trincheras que unen Belkoain, Zarate-Aitz y Andazarrate. "La base estaba en la comandancia de Azpeitia. El comisario Miguel Jose

Garmendia formó un ejército para resistir ante las tropas franquistas, pero más que un ejército eran unos civiles mal armados y un buen general", aclara Almorza. Y aun así lograron resistir durante 34 días. Los voluntarios llenaban autobuses en Azpeitia y los trasladaban al "frente de Andazarrate".

Más de cien muertos

El 19 de septiembre Saseta dio la orden de retirarse con las siguientes palabras: "Creo llegado el momento de

que marchéis a Saturrarán". 2 días antes murió en la Benta de Zarate Jose Arana Irastorza, primer militante muerto de ANV. Y el 18 de septiembre, otro gudari fue abatido también en Zarate, Claudio Olabarri. En el acto de presentación del libro estuvieron presentes los familiares de Jose Arana Irastorza, acompañando al zizurkildarra Teodoro Mujika, cuyos testimonios se han recogido en el libro. El acto terminó con los bertsos de Unai Mendizabal.

Etxez etxeko zaintza zer

Aduna, Alkiza, Larraul eta Zizurkilen hamabost emakumek lan egiten dute etxez etxeko adinekoen zaintza zerbitzuan. Lan baldintza prekarioekin izan dira orain arte.

EULEN enpresarentzat lan egiten dute guztiek, hark baitu Aiztondo mankomunitateko zaintza kontratua. Euren baldintzak azaltzerakoan kontakizun gogorra egiten dute. "Ordukako lana da gurea, beraz lan ordu gutxi ditugu askok. Gainera, kontratu gehienak obrakoak dira, mugagabeak beharko luketenean. Ondorioz, bezeroarekin lan harremana

bukatzean, kontratua eteten digute eta berria egin. Horrek kotizazioan esaterako, eragin nabarmena du. Era berean, etxe batetik besterako tartea ez ziguten lan ordu bezala hartzen, kilometrajea ez ziguten ordaintzen, lan orduak ezartzerakoan koordinazioa ez zen behar bezalakoa...", salatu du Rosa Carretero langile ordezkariak.

Nola da posible urteetan egoera hau eman izana? Langileek eurek, ez zuten elkarrekin harremanik apenas elkartzen zirelako, eta ondorioz ez zuten euren egoera salatzen. "Guk ez genuen ia elkar ezagutzen. Gure lanagatik, bakoitza adinekoa dagoen etxera joaten zen eta kito. Elkartzeko lokalik ere ez genuen. Ondorioz, gure egoeraren inguruan ez genuen hitz egiten elkarren artean. Apirila aldera, pixkanaka langile batzuk mugitzen hasi ziren eta ohartu ginen benetan zein zen denen egoera. Lan aholkulariekin hitz egin, komenioa begiratu eta Udalerako jo genuen".



Maite Amenabar, Rosa Carretero eta Eva Usandizaga.

Dignificando las condiciones laborales de las trabajadoras de ayuda a domicilio

En los pueblos de la mancomunidad de Aiztondo 15 trabajadoras se encargan del servicio de ayuda a domicilio para el cuidado de personas mayores. Todas ellas están contratadas por EULEN, y hasta ahora sus condiciones

laborales han sido precarias. "Nuestro trabajo es por horas y muchas de nosotras tenemos pocas horas de trabajo. La mayoría de contratos son de obra, cuando deberían ser indefinidos; eso nos repercute en las cotizaciones. Además,

no nos pagaban el kilometraje y los desplazamientos de un domicilio a otro no eran consideradas como jornada laboral, entre otras cuestiones", explica Rosa Carretero, representante de las trabajadoras.

Estas condiciones se han

perpetuado en el tiempo. "La cuestión es que las trabajadoras no nos conocíamos entre nosotras, no teníamos ni local e íbamos a las casas para realizar nuestro trabajo y a casa. Esta primavera nos empezamos a reunir y salió todo".

bitzuko langileen baldintzak hobetzeko bidean

Harridura eta kezka

Maite Amenabar gizarte gaietako zinegotziak egoeraren berri izan zuteneko unea gogoratu du. "Udalean ez genuen egoeraren berri. Aiztondoko teknikariek enpresarekin zuten harremana zerbitzuak ezartzeko eta hark bideratzen zituen langileak. Gurekin kontaktuan jarri zirenean, egoera horri buelta eman behar geniola ikusi genuen eta etxez etxeko zaintza kontratu berri baterako pleguak uda aurretik egitekoak zirenez, orain zen egoera aldatzeko momentua", zehaztu du Amenabarrek. Hilabeteotan, zinegotziak, teknikariak eta etxez etxeko zaintzako langileak behin baino gehiagotan elkartu dira. "Errealitate hori kontuan hartuta egin ziren plegu berriak. Legezkontausnaren barnean, baldintzak zorroztu ditugu". Amenabarrek argi du: "Guk ez dugu esaten beste batzuk bezala gure langile zuzenak ez direlako ez dugula erantzunkizunik, erantzunkizuna dugu eta bereziki langile prekario

hauen egoera hobetzeak behar harko luke lehentasuna".

Baldintza berriekin lehiaketan publikoa udan egin zen eta aurkeztu zirenen artean, EULEN-ek eskuratu du berriz ere zerbitzua. Laster sartuko da indarrean kontratu berria. "Enpresa bera izan arren, ez da orain arten bezala izango. Hitzartutako hobekuntza guztiak bete beharko dituzte, gainean egongo gara eta. Gainera beste zenbait klausula ere sartu dira, kontratua bi urtean behin berrikustea esaterako eta ez orain arte bezala bost urtez behin. Horrek jarraipena errazten du. Udal txikiak gara eta orain arteko egoera ez errepikatzeko mekanismoak jarri behar ditugu", zehaztu du Amenabarrek.

Eredu izan liteke

Aiztondoko kasuaz ari bagara ere, Asteasu eta Anoetakoekin batera ari dira aldarrikapenetan langileak, enpresa berekoak baitira. Aiztondon ezarri diren hobekuntzak beste herrietara ere zabaltzea espero dute, eredu

gisa balio dezala. "Pena da langile batzuentzat berandu dela, jubilatzeaz daude edo nazkatu eta lana utzi dutenak asko dira", dio Carreterok. Langile ordezkariak prozesu honetan Zizurkilgo udal or-

dezkariek izandako jarrera eskertu du eta aurrerantzean ere bidelagun izateko esperantza agertu du. "Orain langileok elkartu gara eta horrela jarraitu behar dugu gure baldintzak defendatzen".

"Emakumeak izatea ez da kasualitatea"

Langileek lehenengo bilerara eskatzera Eva Usandizaga parekidetasun zinegotziarengana jo zuten. Izan ere, bai langile ordezkariak eta bai Usandizagak argi dute ez dela kasualitatea emakumeak izatea egoera prekario honetan daudenak. "Emakumeak etxean jasotzen du lan karga: Haurren adinekoen, menpekotasuna duen senideraren zaintza, etxeko lanak ... Etxeko arduren banaketa ez da, oro har, orekatua. Eta kasu honetan ere langile emakumeak dira zaintzara bideratuak eta lan egoera prekarioan gaine-

ra. Sistema patriarkala agerian geratzen da", nabarmendu du Usandizagak. Iritzi berekoa da Carretero. "Etxez etxeko zerbitzu honetan, ia beti zain-tzailea den emakumeak denbora izateko beste emakume bat etortzen da lanera, eta baldintza prekarioak baditu, emakume hori kargatzen da. Gorpil zoro bat da".

Usandizagak argi du. "Prekarietateak emakume aurpegia duela dioenean hau dio-gu. Emakumeek egiten duten lana balioan jarri behar dugu eta dagozkion eskubideak aldarrikatu. Eskubideez ari gara"

7

Tras hablar con expertos en legislación laboral acudieron al Ayuntamiento de Zizurkil. La concejala de bienestar social, Maite Amenabar, explica cómo recibieron las demandas. "Fue una sorpresa, no teníamos constancia de ello, porque los técnicos de Aiztondo tienen contacto con la empresa a la hora de adjudicar

nuevos servicios. Nos reunimos con ellas, con los técnicos de la mancomunidad y vimos que había que hacer algo urgentemente. Era el momento de revisar el contrato del servicio de ayuda a domicilio y entonces lo que hemos hecho ha sido endurecer las condiciones en los pliegos de ese servicio para que se ajusten a

las demandas legítimas de las trabajadoras".

Nuevo contrato

El nuevo contrato con las nuevas condiciones entrará en vigor en breve. A finales de septiembre, al realizar este reportaje las trabajadoras ya habían empezado a notar los primeros cambios. La repre-

sentante de los trabajadores agradece a los responsables del Ayuntamiento sus gestiones y les pide que estén vigilantes para que se cumpla el contrato. "Es nuestro compromiso, y se han puesto mecanismos para que así sea. De aquí en adelante se revisará el contrato cada dos años", remarca Amenabar.

Atxulondori buruzko parte

Parte hartze eta komunikazio batzordea eta Udaleko kultura zein hirigintza sailak elkarlanean, Atxulondori buruzko parte hartze prozesuan bildutako eskaerak erantzuten saiatu dira

8

Atxulondok kultur etxe bezala, zer eduki beharko luke? Galdera hori egin zitzairen udaberrian herriko kultur, kirol eta aisialdi taldeei, baita eraikinaren erabiltzaile diren norbanakoei ere. Helburua, kultur mailako beharren zerrenda egin eta etorkizuneko Atxulondoren birmoldaketa proiektua egiterakoan kontutan hartzea zen. Prozesua gauzatu duen parte hartze batzordea gustura dago emaitzarekin. Izan ere, herriko hamaika elkarteren eta

50 norbanakoren ekarpenak jaso dira. "Ekarpen horiek antolatu, eta berauek asetzeko moduko proposamena egin genien Udal arduradunei, eta politikoak zein teknikariak izan dira proposamen hori gauzatu dutenak", azaldu dute.

Epe motzeko eskaerak

Jaso diren ekarpen gehienak epe motzean asetzeko modukoak izan dira, ekarpenen %57a alegia. "Eskaera praktikoak egin dituzte: era-

gileek espazioen egokitasunari buruzkoak, eta ikastaroetan parte hartzen duten norbanakoek, baliabideen gaineoak", azaldu dute batzordeko kideek. "Adibidez, Loatzo Musika Eskolak bi gela eskatu zituen talde ekin-tzak egiteko. Bukalai dantza taldeak ere dantzarako gela egokiago baten beharra adierazi zuen, ispilu eta barrarekin. Eta eragileen artean gehien errepikatu den eskaera, bilera gela egokien beharra izan da", azaldu dute. Norbanakoek ber- rriz, "ariketa fisikoa egin behar dutenen kasuan, aireztapen egokia duen gela bat, musika ekipo egokiago bat, koltxo- neta berriak edota ikastaroen hasiera eta amaiera ordutegiak errespetatzea bezalako eskaerak egin dituzte".

Eskatzen duten inbertsioa- gatik epe luzean asetzeko es-



hartze prozesua, emankorra

"Musika ekipo berriak ere jarri dira eta koltxonetak berrituko dira"

kaerak ere egon dira. Gehien errepikatu dena zarataren eta beroaren arazoa izan da. "Kultur etxean zarata sortzen duten ekintzak eta isiltasuna behar dutenak uztartu behar dira: batzuetan posible da bi ekintzok ordutegi ezberdinetan jarritz konbibentzia hori lortzea, baina beste batzuetan ez. Horregatik, etorkizuneko kultur etxearen proiektua egiterakoan arazoa kontutan hartuko dute soluzio bat eman diezaioten", diote.

Bestalde, dagoeneko liburutegi berriak asetzen dituen beharrak ere jaso dira: hala nola, proiektio gela baten beharra edota erakusketa gune egoki batena. Azkenik, kultur etxearekin zerikusirik ez duten herri mailako beharrak adierazteko ere erabili dute herritarrek prozesua. "Eskaera hauek ere udalari pasa dizkiogu, herritarrek faltan ikusten

dutenaren adierazle baitira", gehitu dute.

Areto berria

Liburutegi zaharraren tokian egokitu duten areto berriarekin hainbat eskaera asetuzat eman dituzte batzordeko kideek. "Bukalai dantza taldeak beste gela bat behar zuen lehengo areto nagusiaz gain, eta euren zein beste ikastaroetako erabiltzaileek eskatu bezala, ispilu eta barrarekin ekipatu da". Bertan emango dira aurten, euskal dantzak, zumba, sabel dantza, forman jar zaitez edota zaintzaileentzako tailerra. "Ariketa fisikoa eskatzen duten ekintzak egingo dira bertan, aireztapen egokia eskaintzen duelako". Lehengo areto nagusian jubilatuaren soinketa, pilates aurreratu eta gimnasia erritmikoa emango dira. Liburutegi gaineko gela eskulanak, Patchwork eta euskarako klaseak emateko erabiliko da. Lehengo KZ gunearen lekuan berriz, Loatzo musika eskolarentzako gela atondu da. Azkenik, yoga gela dago, yogarako ez ezik musika eskolako kideek ere erabiliko dutena. Eta bilereta-

Maiatza saltsan erdi aroko Zizurkili begira

Nolakoa zen Zizurkil Erdi Aroan? Eta zer nolako bizimodua zuten zizurkildarrek garai haietan? Galdera horiei erantzungo die hurrengo Maiatza Saltsan programak. Dagoeneko, herritar talde bat eta Udala, elkarlanean ari gara hilabeteko egitarau oparoa osatzen. Hamaika ekintzen artean, bat azpimarratu nahi du taldeak: Maiatzeko hirugarren asteburuan, Erdi Aroko Zizurkil erreproduzituko nahi da. Nola? Erdi Aroko festa baten bidez: herriko gremioek euren lanbidea erakutsiz postuak jarriko dituzte; gure musikariek, erdi aroko musikari bihurtuta kalea alaituko dute; haurrak orduko

jolasetan jolasten jarriko dira; erdi aroko sukaldaritzan oinarritutako herri bazkaria egingo dute, eta herritarrek orduko jantziekin jantzita aterako dira kalera. Baina festa hau egiteko behar beharrezkoa da herritarren parte hartzea. Norberak dakienetik jarritz, denon artean beteko dugu asmoa. Zizurkildarrok lehen ere erakutsi dugu parte hartzaileak garela eta herritarren partaidetzaz egingako ekitaldiak direla emaitzarik onenak ematen dituztenak. Parte hartu oraingoan ere!"

Gora ta gora beti, ai gora Zizurkil!!!

rako bi gela aurreikusten dira: liburutegi gainekoa eta goiko solairuko komunaren aldamean dagoen gela txikia.

Baliabide materialei dago-kionez, musika ekipo berriak ere jarri dituzte bi aretoetan

eta koltxonetak pixkanaka berrituko dira.

Bien bitartean, parte hartze batzordeko kideek eskerrak eman nahi dizkie prozesuan parte hartu duten eragile eta norbanako guztiei.

El proceso sobre Atxulondo, productivo

¿Que más debería tener Atxulondo como casa de cultura? Es la pregunta que se realizó a las asociaciones y a los usuarios y las usuarias de la casa de cultura. Las participantes de la comisión de participación están satisfechos con el proceso realizado, ya que 11 asociaciones y

50 usuarios han realizado sus aportaciones, que "mayoritariamente han sido peticiones que se han podido responder ha corto plazo", afirman. Por ejemplo Bukalai ha pedido una sala más para poder impartir clases de danza, y la escuela de música Loatzo también ha pedido dos aulas para

las actividades de grupo. Los usuarios y las usuarias del edificio reclamaron un aula con buena ventilación, un nuevo equipo de música, y colchonetes nuevos, peticiones que han sido respondidas satisfactoriamente. Con la nueva sala que se ha acondicionado en la antigua biblioteca se cum-

plen muchas de las peticiones que se han recogido, salvo el problema del ruido, cuya solución requiere una inversión elevada, y por lo cual tendrá que esperar. La comisión de participación y comunicación ha dado las gracias a todos y todas que han participado en el proceso.

Plazaren proiektuari azken ukituak ematen

Jendaurrean aurkeztuko da azken ekarpenak jasotzeko

P.M. Otaño plazaren itxura aldatuko duen proiektua zehazten ari dira egunotan Zizurkilgo Udalean. Joxe Mari Luengo alkatearengana jo dugu argibide eske. "Uneo-tako lan nagusia hiri altzariak nola jarri erabakitzea da, eta bereziki lur azpiko guztia antolatzea. Plaza guztia altxako denez, kableatu guztia azpitik sartzeko baliatuko da eta ondo begiratu behar dugu gauza bakoitza non jarri, kasik kable bakoitza. Lan horiek behin amaitutakoan ez dira ikusten baina ondo egitea ezinbestekoa da."

Hiri altzariak

Gainontzean, hiri altzari (banku, pibote...) batzuk finkoak eta besteak jarri eta kentzekoak egitea aztertzen ari dira. "Ez da plaza handia, zuhaitza mantentzea erabaki dute herritarrek, urtean zehar hainbat ekitaldi egiten dira, beraz ondo pentsatu behar da hori ere". Plaza berrian oinezkoek orain baino leku gehiago izatea da helburua. "Zuhaitz berria oraingo leku

berdin berdinean ez joatea aztertzen ari gara, oinezkoek leku gehiago emateko. Plaza ahalik eta gehiena oinezkoentzat jartzea da helburua eta kotxeak pasatzea ekidin ezina den arren, herritarrentzako guneak irabazi nahi ditugu. Era berean, plaza zertxobait altxatzea proposatuko dugu sarrera irteeretan, kotxez pasatzen denak argi ikus dezan plazako gunean sartzea doala eta abiadura murriztu dezan" zehaztu du. Behin proiektua landuta, aurkezpen publikoa egiteko asmoa du Udalak herritarren iritzia jasotzeko. 200.000 euroko aurrekontua dute lanek eta aurtun zati bat eta datorren urteko aurrekontuetan beste bat ordaintzea da aurreikuspena.


Haritza jarriko da

Abuztuaren 15 eta 16an, amabirjin jaiekin batera egingako galdeketa haritzaren alde egin zuten zizurkildarrek, boto bakarraren aldeaz irabazi zion Lizarrari. Honenbestez haritza jarriko da P.M. Otaño plaza berrituan. "Iritzi ezberdi-



nak agerian geratu dira, baina haritzak irabazi duenez, berau jarriko da. Faisoro nekazal eskolakoekin elkarlanean egin nahi genuke prozesua". Au-

rez ere herritarrek izan ziren plazan zuhaitza mantentzea erabaki zutenak, maiatzean egin zen galdeketa, gehien-go handiz.



Ultimando el proyecto de la plaza P.M. Otaño

Estos días están realizando los últimos retoques al proyecto de la plaza P.M. Otaño. "Lo más complicado ahora es organizar bien los cables que se instalarán en el subsuelo. Al levantar toda la superficie

de la plaza para su renovación, incluida la retirada del árbol, es el momento de instalar todo el cableado bajo tierra, y es muy importante estudiar bien cada instalación", explica el alcalde Joxe Mari Luengo.

Otro tema de estudio es la característica del mobiliario urbano. "No es una plaza de grandes dimensiones y al año se realizan unas cuantas actividades, por lo que estamos valorando la posibilidad de poner

un mobiliario móvil para que se pueda retirar si fuese necesario". Al finalizar la elaboración del proyecto, se presentará a los vecinos y a las vecinas. La estimación del coste de los trabajos es de 200.000 euros.

Jaiak argazkitan

2016ko jaiek eman dute berea, laburpen gisa 6 argazkitan jaso ditugu abuztuko eta iraileko jaietako 6 une.



Oilasko biltzearen ohitura arrakastaz berritu zen.



Haurrek zirko tailerra izan zuten abuztuaren 16an.



Herri kirolariek sekulako beroari egin behar izan zioten aurre.



Herri bazkariak ehunka zizurkildar elkartu zituen irailaren 10ean.



Los y las más mayores demostraron que siguen teniendo un espíritu joven.



Haur eta heldu, dantza herrikoira batu ziren.

SAGRA JAUREGIBERRI



“Oso terapeutikoa da patchworka”

Ikasturtea hastear dela egin dugu hitzordua Sagra Jauregi-berrirekin: patchworka irakasten du Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean.

Elkarriketaren ondotik, patchworkeko ikastaroa ematera zoaz. Astean non eta noiz ematen dituzu eskolak?

Asteazkenetan, 18:00etatik 20:00etara ematen ditut eskolak Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean; 10-11 bat urte daramatzat. Beste herri batzuetan ere aritzen naiz: Oiartzunen, esate baterako, hiru talde dauzkat. 40-45 bat ikasle ditut guztira, adin guztietakoak. Zizurkildar gehiago etortzea gustatuko litzaidake...etortzera animatuko nituzke! Bestalde, iaz Gaztezulon eman nuen ikastaroa eta aurtan ere bai.

Nondik datorkizu patchworkarekiko zaletasuna?

Orain dela 16 bat urte hasi nintzen. Aita hil egin zen eta amak zerbait behar zuen bere burua zeozertan zentratzeko. Patchworkarekin hasi zen. Patchworkak pauso dezente dauzka eta ondo eman beharrekoak. Oso lan zehatza da eta, ondo egin nahi izanez gero, logistika bat du: telak aukeratu behar dira, diseinua, patroiak egin... amak laguntza pixka bat nahi

zuen eta alaben artean esku-lan zaleena ni naizenez, niri proposatu zidan eta hala hasi nintzen.

Zaletasun izatetik irakasteara badago aldea...nolatan hasi zinen?

Hasi eta 5 urtera Zizurkilgo Azokan jartzeko gonbidapena egin zidan Ainhoa Larrea kultura teknikariak; ama eta biok jarri ginen. Gero, eskolak emateko proposamena egin zidan eta, ondo pentsatu eta gero, baietzkoa eman nion. Gustatu egin zitzaidan eta orain arte.

Teknika ezberdinak daude, ezta?

Bai: koltxa bat pieza ezberdinetan edo blokeka egin daiteke. Tela baten gainean lore bat josi dezakezu esate baterako, edota koltxako pieza erberdinak kosturak kanpora geratzen direla jos daitezke.

Normalean koltxarekin lotzen da patchworka baina beste zenbait gauza ere egiten dituzu

Alfonbrak egin ditzakezu, nezeserrak, diru-zorroak... Sare sozialak asko erabiltzen

ditut eta Pinteresten eta Facebooken ikusgai daude nire lanak.

Haurrentzat liburuak ere egiten dituzu...

Bai, arrakasta handia dute. Liburutegian badago bat eta ikastaroan ere erakusten dut horiek egiten. Oso pedagogikoak dira eta urteetan zehar erabil daitezke: bokalak ikasteko, formak, koloreak, lokarriak lotzen...

Patchworkaren munduan murgiduz gero, topaketa eta bilgune dezente dau-de. Zirkulu horietan mugitzen zara?

Gustatzen zait mugitzea eta teknika ezberdinak ikastea. Urtean behin edo bitan Bartzelonara joaten naiz patchworkari buruzko eskola monografikoetan parte hartzera. Sitgesera ere joaten naiz urtean behin, Zizurkilgo taldearekin. Patchworkaren Nazioarteko Jaialdi bat egiten da han: herriko hainbat lokaletan mundu guztiko lanen erakusketak jartzen dituzte, eta hondartzaren aldameneko pasealekuan denda asko jartzen dira karpatan. Zaleentzat eromena da. Iaz

ere Alsacian izan nintzen beste jaialdi batean: patchwork zale batek bizitzan behin egin beharko lukeen bisita da hura.

Esaiguzu...

Leku bat?

Pasus etxea. Bertan hazitakoa naiz, eta gainera txikitako oroitzapen ederrenak bere inguruan gertatutakoak dira, batez ere orduan genduen plazan.

Pertsona bat?

Betidaniko txikiteroen kuadrila. Bizitza osoan eza-gutu ditut egunero tabernaz taberna. Gainera, nire aitaren kintakoak dira, eta pena ematen dit gero eta gutxiago gelditzen direlako.

Zer dago faltan?

Komertzio gehiago, Villabonaren menpe bizi garelako gai horretan. Horrez gain, Zizurkil goia eta behearen arteko lotura gehiago ongi egongo litzateke, bi herri ezberdin diruditelako.

Eta zer soberan?

Kalean pilatzen den zaborra.

B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartze
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.